

tti pi-ttapa

249. zenbakia • 1999ko martxoak 11 • XIX. urtea

Munduko sokatira txapelketa


Irlandako Carlow herrian jokaturako 1999ko munduko txapelketatik bortz domina ekarri dituzte Areso eta Lesakako tiralariek



Beti Gazte eta Areso urrez jantziak

Kolore eta materiale guzietako dominekin jantziak itzuli dira Irlandako Carlow herritik Areso eta Beti Gazteko sokatira taldeak. 1999ko Munduko txapelketa zegoen jokoan, klub eta nazio artekoa. Aresoko taldea Euskal Herri-

ko txapel guziak irabazita joan zen, animoz betea. Klub arteko txapelketan, 560 kiloko brontzezko domina bakarrik erdietsi bazuen ere, nazioartekoan, zilarrezkoa 560tan eta urrezkoa 600 kilokoan. Lesakako Beti Gazte klub

arteko txapelketan parte hartu zuen. 560 kiloko txapelketan urrezko domina eskuratu zuen. 600 kilokoan zortzikote bera kantxaratu bazuen ere, brontzezko domina etxeratzea lortu zuen.  29



3 Elkarrizketa: Mikel OLANO

Areso eta Leitzaoko hizkerak aztertu ditu filologo leitzaarrak. Bere esanetan, gipuzkeraren eragina nabarmenagoa da Areson Leitza baino. Beste arrazioen artean, «Leitza beti herri haundia izan da eta errexago estali eta xurgatu du etorkinen hizkuntz eragina».

4 Erreportaia: Derrigorrezko ikasketak bukatzean zer?

Mutil aunitz lanena hasten dira DBH akautu bezain laister. Neskek, aldiz, nahiago izaten dute ikasten segitzea. Ikasleen iritzia bildu dugu, baina, zer da lan merkatuak eskatzen duena?.....

28 Kirolzketa: Jone Fagoaga

Espainiako Autonomia arteko ehiza txapelketa, San Huberto modalidadean, irabazi du 15 urteko lesakarrak.....

TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



Juan Larregi «BITXO»

Santiago, 10 • 948 580 898 • ELIZONDO



40 c.c.ko Desbrozadorak
PROMOZIOA
68.000 Pezetatik goiti.



Belar-moztekoak

Hesi-moztekoak
gasolinazkoak edo elektrikoak

PROMOZIOA

Moto-aitzurak
75.000
ptatik
goiti



**MUEBLES
A METS**
mobilier d'inspiration



Bidasoa 45-60

BERA

Tfnoa: 948 630537

**NEURRIRA
EGINDAKO
MOBLEAK**

DATUAK.....

❖ “Areso eta Leitzako hizkerak, bertako hitz eta historian barrena” liburuaren egilea da Mikel Olano, 30 urteko leitzarra.

❖ Euskal Filologian lizentziatua da. Duela zenbait urte, Donostia Hiria saria lortu zuen ipuin labur batekin, baina sekulan ez du bere burua literatur idazletzat jo. «Saio ttiki bat egin nuen eta ongi atera zen, baina ez du bestelako garrantzirik».

❖ Duela bost urte Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako hizkerak aztertzeke beka eman ondoren hasi zen lanean liburu honetan.

✍ **Mikel OLANO** *Leitzako filologoa*

“Areson Leitzan baino nabariagoa da gipuzkeraren eragina”

LIBURU HAU ARGITARATZERAKOAN, LEITZA ETA ARESOKO HIZKERAK ERE NAFARROAKOAK DIRELA ALDARRIKATU DUZU. ZERGATIK?

Iruñeko euskaldun-berri eta euskaltzaleen artean gehiago jotzen da ekialdeko (Baztan, Bortziriak, Aezkoa, Ultzama...) hizkeretara, gipuzkerarekin kontraste edo ezberdintasun gehiago dutelako. Ez dira hainbeste aipatzen Araitz, Larraun edo Sakana aldekoak. Gurea ere erdialderago dago eta itxura gehiago du gipuzkerarekin, baina Nafarroako hizkera da, noski!

ARESOKO HIZKERAN LEITZAKOAN BAINO GEHIAGO NABARI OMEN DA GIPUZKERAREN ERAGINA. ZER DELA ETA?

Arrazoi asko daude tartean. Areso Gipuzkoatik gertuxeagoa dago, baina horrek ez du dena arrazoitzen. Berastegi Leitzatik hurbilago dago, adibidez. XVIII. mendera arte bazen errepide bat, Tolosatik Lekunberrira zihonana, Areso gainera pasatuz. Gipuzkoarako ardidibe inportantea zen eta Erriberako zezenak ere Gipuzkoako plazetara ekartzen zituzten. Hor bada arrazoi bat. Bestea arrazoi demografikoa izan daiteke. Ezkontzerakoan Lei-



«Beldur gehiago diot erdararen eraginari euskara homogeneousatuari baino».

tzak gehiago begiratu du Goizueta eta Basaburua Txikira (Eratsun, Ezkurra, Saldias...) Aresok baino.

BI HERRIEN ARTEKO GATAZKA GIROA ERE HORDAGO, EZ DA?

Hori hipotesia besterik ez da eta frogatzeko zaila da. Beharbada arrazoirik inportanteena Leitzeta betidanik herri kizkorra izan dela da. Aspaldian 1.500 biz-

tanletik gora ibili da eta hiriburu txiki baten funtzioa egin du Basaburua Txikiko herriekin. Honela, gipuzkeraren eragina aspaldikoa da, baina kanpoko hizkuntz-tantta batek eragin haundiagoa izanen du Areson Leitzan baino. Leitzak errexago xurgatu edo estali du etorkinen eragina.

AZTERKETA EGITERAKOAN ADINEKO JENDEAREKIN EGON ZARA GEHIEN BAT, BAINA HIZKERAN EZ AL DA DAGOENKO NABARI TELEBISTA EDO IRRATIAREN HOMOGENEIZATZEA?

Baliteke, bai. Lehenago hartuko dute gazteek zaharrek baino. Zaharrek zuzenean telebistatik ez dute hartuko, gazteetatik baizik. Alde guzietan hizkera gero eta berdinagoa da, baina aldi berean gure nortasuna zaintzeko gogo haundiagoa da. Seguraski euskalkien aldeko lan haundia egiten da orain horregatik. Dena den, nik nahiago dut Euskal Herri osoan euskara antzekoa baina zuzena eta txukuna egitea, euskalki txapuzeroa egitea baino. Beldur gehiago diot erdarari.

► *“Leitzeta herri haundia izan da eta hiriburu baten funtzioa bete du. Honela, gipuzkerak eragin haundiagoa izan du Areson Leitzan baino.”*

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
NAFARKARIA



Ikasketak eta lana. Bi mundu hoiek bata bertzearen segida diren arren, salto ikaragarria izaten da ikasle gehienentzat. Mutilentzat beharbada errexago izaten da pausu hori ematea, ate gehiago aurkitzen dutelako zabalik. Neskek, aldiz, nahiago izaten dute ikasten segitzea lan merkatuak ematen dien aukera murrizta dela eta. Baina zer da hemengo lan merkatuak eskatzen duena? INEMeko arduradunek adierazi digutenez, koalifikatu gabeko langileak behar dira batez ere, eta gaur egun hagitz ikasle gutti ateratzen da eskolatik inolako prestakuntzarik gabe.

Doneztebeko institutuko ikasle talde batekin egondu gara euren etorkizunari buruz solasean. Lau neska—hiru sunbildar eta Doneztebeko bat— eta bi mutil—Saldias eta Labaiengoak— bildu ditugu mahai baten inguruan. Denek ere aurtent derrigorrezko ikasketak (DBH) akituko dituzte. Ana Arretxea sunbildarrak, adibidez, psikologia ikasi nahi du, baina ez du uste titulua ateri ondotik hemen lana aurkituko duenik; «*hemen Osasun Etxe batean beharbada hartzen ahal naute, bainan zaila da, seguraski kanpoan bilatu beharko dut lana*». Berak bezala bertze hiru neskek ere ikasten segitzea aukeratu dute, eta



Doneztebeko eskolan aurtent DBH akituko duten sei ikaslerekin bildu gara: hoiertan, neskek ikasten segitzea erabaki dute, eta mutilek, berriz, lehenbailehen lanean hastea dute burutan. Joera hori azken urteotan zabaldu omen da.

Derrigorrezko ikasketak bukatzean zer?

unibertsitaterako bidean batxilergoarekin hasiko dira heldu den urtean. Pilartxo Mitxeltoarena doneztebarrak Iruñean eginen du batxilerra: «*gero Soin Hezkuntza estudiatzeko asmoa dut*». Sunbillako Marta Petrirena, berriz, Lekarozera joanen da eta ingeniari-tza ikasi nahi du batxilergo akautu

ondotik. Nesken artean kazetari-gai bat ere harrapatu dugu: Iratxe Eizagirre sunbildarra. Berak aipatu digunez, egunotan test batzuk egiten ari dira eskolan euren bokazioa zein den jakiteko: «*test hoiek eginta zuk ikasi nahi duzuna ateratzen da, eta kasu gehienetan koinziditzen du*».

«Ikasle batzuen formakuntzak ez du zerikusirik enpresek nahi dutenarekin»



Lanbide-orientazio zerbitzuak badu harremanik inguruko eskolekin?
Bai. Leitza eta Elizondoko eskolekin eta Bera-ko Toki Onarekin. Le-

hendabiziko bietako ikasleekin zonaldeko lan merkatua ezagutu eta aztertze-ko tailerrak antolatzen ditugu.

Lan munduarekin lehen kontaktua duten ikasleekin aritzen zarete?

Bai. Ikasleen arabera oso egoera desberdinak dira. Adibidez, DBH bkatu duen neska batek benetazko orientazioa behar du ez baitaki nola mugitu lan merkatuan, baina Lanbide Heziketa egin duen

mutil batek (batez ere mekanika arlotan), lan-poltsan sartzea bertzerik ez du, eta normalean berehala enplegatuko da. Eskolatik ateratzen direnean prestakuntza egokia dutela uste duzu? Ez. Gehienetan ez dute formakuntza konplementariorik. FPII edo mekanika ikasi dutenek beharbada badute enpresek eskatzen dutena, baina administratiboak, adibidez, hizkuntzak jakin gabe eta informatika gutxirekin ateratzen dira. Lortzen duten formakuntzak ez du zerikusirik enpresek nahi dutenarekin, desoreka haundia da. Orokorrean denei falta zaie enpresetan praktika gehiago.

Zer gisako enpleguak nahi izaten dituzte ikasketak bukatzerakoan?

Bere prestakuntzarekin harremana duen enplegu bat, edo lan eroso (fabrikan adibidez) soldata eta ordutegi fijo batekin.

Eta zer da lortzen dutena?

Mutilak fabriketan sartzen dira, baina kontratu oso tenporalekin, eta neskek,

berriz, ostalaritzan edo umeak zaintzen. INEMaren arabera, eskualdean prestakuntzarik gabeko jendea behar omen da lan egiteko...

Enpresek INEMera edo Lan-Poltsara jotzen dute oso zaila denean pertsona bat bilatzea, eta gaur egun prestakuntzarik gabeko jendea aurkitzea da zaila, zeren ia gazte guzietan badute titulazioa.

Hutsunerik ikusten duzu ikasketak eta lan munduaren artean?

Bai. Enpresen beharrekin eta orokorrean lan munduaren eskaerarekin lotura gehiago duen formakuntza profesionala beharrezkoa da. Bi munduen arteko harreman estuagoa behar da. Hezkuntza sistemak malguagoa izan behar luke, lan merkatua arras aldakorra baita. Bertzetik, gazteek merkatuari begira hautatu beharko lukete euren formakuntza, eta ez betiko rol sexistei jarraituz, hau da, neskek administratibotan eta mutilak elektromekanikan.

Imanol Etxeberriak, aldiz, ez ditu test horiek egin, argi baitu zer egin nahi duen heldu den urtean: «*lana; hartzen banaute bederen. Bertzenaz mekaniko ikasiko dut Elizondon*». Ikasteaz nekatua dagoela dio, eta lan egiteko problema haundirik ez duela izanen pentsatzen du. Pablo Elizondo da gurekin bildu den seigarren ikaslea. DBH akituta lanbide bat ikasteko gogo du: zurgintza. «*Bi urtetan titulua ateri eta gero lana bilatu beharko dut*» dio. Sei lagun hauen kasuan, neskek ikasten segitu nahi dute eta mutilek, berriz, epe laburrean lanean hastea aukeratu dute.



“Lanean hasi nahi dut heldu den urtean, hartzen banaute bederen. Bertzenaz mekaniko ikasiko dut Elizondon”.

bide heziketa (FPI) egin eta gero goi mailakoetara pasatzen ahal zen (FPII), baina gaur egun ez, batxilergoa gainditzea esigitzen baita. Horregatik, batxilergoaren bidea hautatzen omen dute ikasle gehienek.

Neskak—adin horretan heldu-agoak izaki— ikasketen behar- rari buruz konszienteagoak

edo bertze hartzea, nahiz eta eskolan bertan DBHn sartzen direnetik horretarako laguntza izan. Fernando Etxetxipia Doneztebeko eskolako orientatzailearen arabera, «*batxilergoa bilakatu da bide nagusia unibertsitate-joateko, baina baita lanbide heziketarako ere, goi mailako teknikari gisa*».

Lehenengo ikaske- ta sistemarekin erdi mailako lan-

omen dira alde batetik, baina bertzetik, badakite eskola utzi ezkerko hostalaritzan edo umeak zaintzen akituko dutela seguruenik.

Adin horretako mutil gehienek, berriz, dirua irabazteko gogoz lanean hastea dute burutan. Etxetxipiak erran digunez, kasu hoietan «*zer edo zer ikastera bultzatzen ditugu ahal izan ezker*».

Zer dio lan merkatuak?

Doneztebeko INEMeko arduradunen arabera, inguru honetan batere kualifikazio- rik gabeko jendea behar da lan egiteko. Peoiak kontrata- tu nahi dituzte hemengo enpre- sek, ez ikasketa- dun jendea. Gi- zasemeak obre- tan lan egiteko

edo lantegietan aritzeko deitzen dituzte gehienbat, eta emakumeak, berriz, etxeak garbitzen edota ostalaritzan aritzeko.

Kontuan izan behar da, ordea, INEMetik kanpo pertsonalki ere egiten direla kontratu aunitz eta aunitz. Enpresek, gehienetan, prestakuntza berezia duen langile bat hartu nahi dutenean jokatzeko dute gisa honetan.

Hala ere, garbi da goi unibertsitateko ikasketak edo goi mailako titulazioa duen jendeak lan bila kanpora jo behar izaten duela maiz, edo bertzenaz ikasi duenarekin batere harremanik ez duen ofizio batean enplegatu behar izaten duela hemen; lantegi batean produkzio sailean, mendian edota ostalaritzan... ■



“Hemen mutilek mendian-edo lana aisa aurkitzen ahal dute, baina neskek zer? Ez dugu deus: umeak zaintzen, etxeak garbitzen edo bestela serbitzen...”

Gehienak batxilergora

Baina ez da batere errexa izaten adin horretan aukera bat

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxe, Frederick Berruet,

Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea, Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi

eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu

Mankomunitatea...

Harpidetzariak:

Hego Euskal Herria2.000 Pta.

Ipar Euskal Herria140 Libera

Europa3.500 Pta.

Amerika15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Ikasleak lan munduari begira

Izatekotan produkzioan aritzeko hartuko naute, ez nik ikasi dudana lanbidean



Jesús Mari IRISARRI
Etxalar. 20 urte.

Aurten Goi Mailako Lanbide Heziketa egiten ari naiz Berako Toki Ona ikas-

tetxean, hain zuzen ere, ekipu industrialen mantenimenduan espezializatua. Momentuan 5 mutil gaude klasean.

Heldu den urtetik goiti ahal baldin bada lantegiren batean mantenimenduan lan egin nahi nuke. Orain arte Alcon aritu naiz arratsaldetan, baina hemendik aitzinera praktikak egin behar ditut hiru hilabetez, eskolako proiektua akautzeko. Joan den urtean kurtsoa bukatu zutenetik aunitz praktikak egin zituzten tokian ari dira orain lanean: Saveran, Hidroruber-en...

Nik lehendabiziko hemen hurbilean eskatuko dut lana, baina arrontean zaila ikusten dut. Inguruko enpresa aunitz jendea kanpora botatzen ari dira.

Gaur egun ez da errexa ikasi duzun lanbidean lan egitea. Nere ustez, nonbaiten hartzen banaute produkzioan lan egiteko hartuko naute, eta ez eskolan ikasi duten horretan aritzeko. Lantegi gehienetan, gainera, mantenimenduko jendea kentzen ari dira poliki-poliki. Izan ere, mantenimendua merkeagoa ateratzeko kanpoko enpresa kontratatzen hasi dira orain.

Nik ez dut eskola maite, bainan lan bat atxemateko beharrezkoa da ikastea



Nahia LAHET
Senpere. 15 urte.

Neri ez zait eskola gustatzen baina bistan da gaur egunean ikastea beharrezkoa dela.

Ni bezalako ikasleek sail orokorrean segi dezakete bigarrenetik goiti lizeoan. 14 urterekin uzten da kolegioa lizeoratsartzeko. Ikastetxez aldatzen da eta hor sail ainitz erakasten da: zientziak, literatura eta hizkuntzak, besteak beste. Horrek gehienetan fakultatera eramaten zaitu gero.

Bertze batzuek profesional ikasketak nahiago dituzte, ni horietakoa naiz. Aski fite, kolegioa utziko dudalarik, ofizio bat ikasten ahalko dut lanbide-eskola batean. Jende ainitzek hori hautatzen du gustukoa duen ofizioa ikasteko gisan. Nik, adibidez, ileapaindegi batean lan egitea gogoko nuke. Horretarako, Hendaian bada ikastetxe profesional bat CAP eta BEP kurtsoak segitzeko. Kanbo-ko ikastolan hirugarrena bururatu-ko dudalarik Hendaiarat ganenaiz.

Egia erran gure adinean ez dugu eskola maite, bainan nere ustez, ahal bada gazte batek ikasi behar du, hobe izanen baita beretzat. Ofizio bat atxemateko eta gero hortan gustora izateko, ez da bertze aterabiderik.

Emakumeak lehen baino errexago sartzen gara edozein lanetan



Nerea GARTZIA
Leitza. 16 urte.

Nik DBHko azken kurtsoan ikasten dut orain, eta hurrengo urtean baxtilergoa egingen dut zientzia arlotik. Horren ondoren, dudatan nabil Medikuntza edo Soin Heziketa egin.

Aurtengo ikasturteko hirugarren hiruhilabetean hasiko gara orientatzailearekin hitzegiten, testak egiten, pixko bat gure geroaz orientatzen; zer egin nahi dugun eta horretarako zein bide hartu ditzazkegun...

Azkeneko erabakia nik neronek hartu beharko dut, baina bai gurasoen eta bai orientatzailearen iritziaz kontuan hartuta. Gurasoek nik nahi dudana egiteko esaten didate, nere esku dagoela eta beraiek ez nautela behartuko. Azken finean gero nik egin beharko dut lana, ez beraiek.

Klasean 22 lagun gaude, eta gehienek baxtilerraren bidea hartuko dugu; 15ek-edo. Mutil bat edo bi, berriz, ikasketak utzi eta lan mundura sartuko dira zuzenean. Dena den, mutilek neskek baino errexagoa dute lana bilatzeko. Orain bizitza dagoen bezala ikasketarik gabe ez zoaz inora.

Hala ere, emakumeak lehen baino errexago sartzen dira edozein lanetan. Oraindik gizartea pixko bat matxista da, baina poliki-poliki egoera aldatzen ari da.

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

BOTA BERTSOA



Emakumearen Eguna

Celia Ordoki, Garbiñe Fagoaga eta Julen Zelaieta

Neurria: Hamarreko handia

Emakumean Egunarekin ezin atzera gelditu gizarte hontan emakumeak du behar hainbat merituegun bat dauka bere omenez ez gaitzela harritu gizarte honen jokabidea halere ezin saritu urte guziko egun guziak ere merezi baititu

Lore txiki bat jaio zenetik gizarte honen baratzan emakumea jarri izan da loretxo baten arantzan beti bigarren planoan dago gizonarekin balantzan hala ta guztiz geure mingainak hor egonen dira dantzan egunen baten egoera hau konpontzeko esperantzan

IRAKURLEAK MINTZO

Euskara eta «MAAF» aseguratza:

Salaketa sakon bat egin nahiko genuke Estatu Frantseseko MAAF aseguratza-jokamoldea dela eta euskararen aintzinean.

Jakin bagenekien Euskal Herrian Euskararen eskutik Frantses Posta Zerbitzuak erroto euskararen aurkakak zirela. Izan ere, txekak edo taloiak, guk erruz erabiltzen ditugunak, euskaraz idatziak baziren onartzen ez zituztela, helbideekin ber gauza.

Berriki MAAF Asegurantzario euskaraz idatzi genien txekak berriz gibelerat igorri digute «ayez la gentillesse d'écrire le chèque en français les banques n'acceptent pas» oharrarekin. Gauzak hortaratuak, aspaldiko bezeroak bagina ere, beste aseguratza baten xeka hasteko xedea hartu dugu.

Halere ongi litzateke MAAFeko bezero diren euskaldun orok ber gauza egiten balute, erran nahi baita euskaraz idatziko balituzte txekak. MAAFeko zuzendaritzak txekak euskaraz lehen aldiz zuztela erran ziguten eta be-

ren bankoek (MAAF bere buruaren bankua delarik) onartzen ez dituztela argudiatuz. Bezero onak ginen alta: urtean lau mila libera utziz, abantxu istripurik gabe eta ondorioz guzia irabazi garbia haiendako. Bezero bakana eta bakarra izan beharrean, ehun bagina erran nahi baita «business hizkuntzan» 40.000 libera galduko balute MAAFeko agian eta arazi euskararekiko jokamoldez aldatuko lukete.

HELETAKO BIZILAGUN BAT

**Eako alkatea duen Baztango Udala ere euskararen dekretua bete ezinean dabil**

Baztango Udalak atezain bi lanpostu finko eta zerbitzu anitzeko lanpostu finko bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko bi deialdi atera ditu (1999ko urtarrilaren 25eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean). D mailakoak dira lanpostu horiek.

Euskara jakitea aurkezteko baldintzen artean dago. De-

na den, eskatzen duten euskara maila Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila da, hau da, Oinarrizko Zikloa.

Horrek Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua urratzen du. Oinarrizko Zikloa E mailakoei eskatu beharrekoa baita, eta D mailakoei eskatu beharrekoa, ordea, Gaitasun Ziurtagiria delakoz.

Hau salatu nahi dugu. Azken batean, euskararekiko eta euskaldunok euskaraz atendituak izateko eskubi-dearekiko axolagabekeria erakusten baitu.

Baztango Udalean EA alderdiak agintzen du. Hala ere, bertze erakundeetan nagusi den utzikieriak kutsatuta dagoela dirudi. EA UPNren Dekretua betetzeko ezin iritsirik ibiltzea... Hamaika ikusteko jaio ginen, nonbait. Deialdia aldatzea eskatzen diogu Baztango Udalari, eta alderdi espainolistekiko jite ezberdina erakustea eskatzen diogu EAri. Zertan dabil? Bidean galduta ote?

BAZTANGO EHE

**OKANE**

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948 63 00 18 • BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ttipi-ttapa
internet<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com*Eskaintza berezia!*

Martxoaren 11tik maiatzaren 15a bitarte autoa gidatzeko karnetarekin A1 (motoak gidatzeko) karneta oparitzen dugu.

 **Anamari ETXEBERRI** Saratarra

Diskriminazio erak aldatu egin dira, baina ez desagertu



"Bizi emaile, Borroka egile, Langile. Hori zera, Emakume, ma it a t u a, ukatua, zapaldua, Emakume". Hitz hauek ezezagun batek idatzi zituen eta Guk taldeak abesten ditu. Laburki erakusten dute emakumearen egoera: batetik emaztea dela bizia ematen duena, haurren ama, bertetik gizona bezala langile eta borroka eramaile dela; baina hala ere bere nortasuna zalantzan ematen dela.

Legearen arabera gizonak eta emaztekiek eskubide berak dituzte, hala ere, gaur egun herri batzuetan emaztekiek ez dute, ez bozkatzeko, ez mintzatzeko aukerarik ere. Gure gizartean ez baldin bada gehiago holakorik pasatzen, bertzerik badugu jasaiteko: tratu txarrak. Joan den urtean, egunkarietan, irratietan, telebistan oihartzun haundia eman zitzaizen, prentsaren joera aldatuz joan baita. Denok dakigu, emazteok ez ditugula atzotik jasaten tratu txarrak, bortxaketak; zertarako orduan orain horrenbeste aipamen? Fenomeno sozial bat sortu da, bakotxak jasotzen dituen tratuak salatzeak aukera emanez. Emakume elkarteek (Egizan...) izugarritzko lana egin dute arlo hortan. Goenkalen ere aipatu da gai hau. Aktore batek zion tratu txarrena ez dela gai aproposa jendearen aitzinean aipatzeko, holako istorioak etxean konpondu behar zi-

rela. Hau fikziozko historia baldin bada ere, errealitate-tik hagituz hurbil da. Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna 1911. urtean aldarrikatu zen lehenbiziko aldikotz, emazteen lan baldintzen aurka protestatzeko. Berdinketa lortu baldin badugu legez, praktikan bertzerik da. Emazteak, gizona bezala gizakia baita, eskubide berdina ematen dugu aukera diputatu, alkate edo edozein kargu publiko izateko. Adibide tiki bat,

Gizartea ez da oraindik ohituratua emaztekiak buru ikustera.

Emazteari beti gehiago eskatzen zaio.

Titulu, diploma berdinekin errexkiago lana atxemanen du gizon batek.

Saran 18 hautetsi ditugu (auzapeza barne) horietatik 3 dira emaztekiak, erran nahi baitu %16,7a. Sarako egoera ikusten da herri gehienetan. Zer dira arrazoinak? Erantzun garbirik ez dut, esplikazio batzuk baizik. Gizartea ez da oraindik ohituratua emaztekiak buru ikustera. Emazteari beti gehiago eskatzen zaio. Titulu, diploma berdinekin errexkiago lana atxemanen du gizon batek, diskriminazioa oraindik badela ezin uka. Martxoaren 8a gure eguna bai, baina gizartea gureganatu behar dugu urte osoan. Garaia da.

 **Joxan OIZ** Orientatzailea

Bidegurutzean



Hamabortz hamasei urteko gure ikasleak bidegurutzean daude sasoi honetan. Izan ere, DBH eta parean "D" hori galduta (Derrigorrezkoa), ondorengoren "O" zorionekoa aukeratu behar baitute. Ez da lan makala. LOGSE legeak 14 urterekin egiten zen aukera gibeldu egin zuen, bi urte gehiago erabakia hausnartzeko, halaz ere, erabaki hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula eta 14 urterekin edota 16rekin hartuta ere galdera izutzeko modua da: ETA ORAIN ZER?

Orientabidegintzan aritzen garenok argiro ikusten dugu pausu honen garrantzia, eta erabaki hau bapatekoa izan ez dadin saiatzen gara. Landu beharrekoa, ordea, mutur aunitzeko soka da: Batetik, erabakia ez da pertsonala. Gurasoek badute zer errana eta inplikazioa, eta laguntza haundiena eskaini behar diete seme-alabei. Bertetik, ikastetxearen aholkularitza "teknikoa" ere kontutan hartu behar da alde batera edo bertzeraz jotzeko erreferentzi baliagarri gisa. Eta azkenik, ikaslearen aukera osatzeko bere gaitasun, interes eta gogoek bat egin behar dute. Urtean zehar DBH4ean erabakitze beraren garrantziaz hausnarketa orokorra egiten da, hautazko ikasgaiek ere erakusten dute joera bat, Batxilergo eta Lanbide Heziketaren sistemen balio eta irtenbideak erakusten dira, data hauetan inguruko ikastetxe

guztien informazioa biltzen da. Halaz ere (hau urtero errepikatzen den eritasun endemikoa da), ikaslea nerbiositu egiten da, zalantza laino bat nagusitzen da, gurasoak heldu denaz kezkatzen dira eta ikastetxeok ahalik eta informaziorik gaurkotuena biltzen saiatzen gara. Izan ere, iduri du urtean zehar egindako lan guztiak porrot egiten ahal duela eta bizitza osorako hankasartzea izaten ahal dela orain okerreko bide hartu ezker.

Lasai. Kontuan hartu behar

Gurasoei aholku bat: DBHoko ikasketak egiteko aukerak ez murriztu eta aurrematrikulazioak ahalik eta ikastetxe gehienetan egin.

da inguruan dugun eskaintza ezin hobea eta moldeautzita dela. Batxilergo izaten ahal dela zalantzasuen probalekua, egungo erdi mailako lanbide heziketa gero eta espezializazio eta maila haundiagoa duela (atzen du, hortaz, zenbait aurriritzi: karrera bat egite hutsak ez baitio inori lan eder bat ekartzen) eta, baita ere, gaitasun aldetik ikasten segitzeko trabak izaten ahal dituenak ere, DBH gainditu gabekoak barne, baduela hastapen lanbide heziketaren aukera lanpostu duin bat lortzeko trebakuntza emanen diona. Hondarrekoz, gurasoei aholku bat: hozkailu bat erosteko sei denda ezberdin bisitatzen baldin baditugu, DBH-Oko ikasketak egiteko aukerak ez murriztu eta aurrematrikulazioak ahalik eta ikastetxe gehienetan egin.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egunkaria 99ko martxoaren 4a

«Euskaraz bizitzea da baztandarron edabe magikoa. Horregatik mantendu da hemengo sentimendu euskalduna».

Pantxo ETXEBERE,
"Pottoka"

Nekazari eta abeslaria
Egunkaria 99-03-04

«Herriotako mila istorio kontatzen ahal da esku eta aurpegi ximurtuak dituzten amatxi hoiengatik laguntzarekin».

Patziku PERURENA
'Goizueta eta Aranoko hizkerak' liburuaren egilea.
Egunkaria 99-03-03

◆ **Zergatik zara irakasle?**

❖ Gogokoa dudalako zendeari jakitate pasatzea, kontaktuak izanez.

◆ **Zuretzat besta hoberenak nongoak dira?**

❖ Sarakoak.

◆ **Kirolik egiten al duzu?**

❖ Bai, pilota eta txirrindulaz ere ibiltzen naiz.

◆ **Gehien maite duzun gauza?**

❖ Afariraino luzatzen diren lagunarteko bazkariak.

◆ **Eta guttien maite duzuna?**

❖ Dudarik bate intolerantzia, jendea den bezala ez onartzea.

◆ **Bakantzak pasatzeko toki bat?**

❖ Eskozia.

◆ **Liluratzen zaituen norbait?**

❖ Gerry Adams.

◆ **Zein musika maite duzu?**

❖ Neri reggae doinuak eta ertamerikako dantzen erritmoak izigarri gustatzen zaizkit.

◆ **Gehien gustatzen zaizun jatekoa?**


❖ Txuleta.

◆ **Zein da irakurri duzun azken liburua?**

❖ Guillebaud idazlearen "plazerraren tirania", gaurko egunean sexuaren tokia aipatzen duena.

◆ **Zein dira dituzun proiektuak?**

❖ Hasteko, bidaiatzea munduan barna jendea ezagutzeko. Zinez nahi nuke nere lana eskuaraz egin, gure mintzairan zientziak irakasteko gisan.

**Paxka DUHAU**

SENPERE

Irakasle eta musikaria

BAZTAN

multiservicios

Santiago, 51 • ELIZONDO • "La Asturiana" ondoan

Tfnoa. eta faxa: 948 58 05 06

ETXEEN SALEROSKETA:

- ✗ Etxe eta lurren salerosketa eta alokairu zerbitzua

PISU-ETXEETAKO**ADMINISTRATZAILE LANAK:**

- ✗ Urteko kontuak
- ✗ Gestio lanak

ABOKATU LANAK:

- ✗ Herentziak
- ✗ Bereizketak
- ✗ Arazo legalak

AHOLKULARITZA ZERBITZUAK:

- ✗ **Fiskala:**
IVA, IRPE, Sozietateak
- ✗ **Laborala:**
Nominak, Autonomoak, Altak eta Bajak
- ✗ **Juridikoa:**
Kontratuak
- ✗ **Kontabilitateak**

Arrantza denboraldia martxoaren 21ean zabalduko da

Amoarrain arrantza abuztuaren 30ean akautuko da

TTIPI-TTAPA

Igande honetan zortzi, martxoaren 21ean zabalduko da gure erretetan izokia eta amoarrainak arrantzatzeko epea, Nafarroako Gobernuo Ingurugiro Departamenduak sinatutako aginduaren arabera.


Izokiari dagokionez, arrantza denboraldia 75. arraina hartzen denean akautuko da. Kopuru hori lortzen ez bada, uztailearen 18an itxiko da denboraldia. Epe honetatik kanpo, ezin izanen da arrantzarik egin Doneztebeko San

Tiburtzio presatik hasi eta Endarlatsa bitartean. Arrantzale bakoitzak eguneko izoki bakarra hartzen ahal du, beti ere 40 zentimetrokoa baino haundiagoa. Asteartetan ezin izanen da izokirik hartu.

Amoarrainaren arrantza denboraldia ere martxoaren 21ean zabalduko da eta abuztuaren 30ean itxiko da. Ekainaren 30a arte, arrantzale bakoitzak gehienez bortz amoarrain hartzen ahal ditu. Egun horretatik aitzina, gehienez hiru hartu ahal izanen dira. 21 zenti-

metro baino tikiagoak diren amoarrainak urera itzuli beharko dira. Asteartetan ezin izanen da arrantzarik egin.

Izokiak dituzten erretetan arrantzarako ordutegia honako hau izanen da hilabetez hilabete: martxo eta apirilean, goizeko 7etatik arratseko 9,30ak arte; maiatza, ekaina eta utzailean, goizeko 6,30etatik gaueko 10,30ak arte; abuztuaren, goizeko 7etatik 10,30ak arte eta iraila eta urrian, goizeko 7etatik gaueko 9,30ak arte. Izokirik ez duen erreka bada, eguz-



Berrogei zentimetro baino tikiagoak diren izokiak urera itzuli beharko dira. Artxibokoa

kia atera baino ordubete lehenagotik hasi eta eguzkia gorde ondotik

bertze ordubetez arrantza egiteko aukera izanen da.

OSASUNA

Larrialdietarako anbulantzia jarri dute Bortzirietan

Lesakan izanen du egoitza

Martxoaren 1etik aitzinera lanean ari da Bortzirietan larrialdietarako anbulantzia be-


rria. Malerreka eta Leitzaldean bezala, Nafarroako Gobernuak Urbaser enpresa kon-

tratatu du Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako larrialdietarako. Jakina de-

nez, herriotako bizilagunak kexu ziren, azkeneko hilabetetan anbulantziarik gabe egon baitira. Bortz herriei zerbitzua emateko sei lagun kontratatu dira. Anbulantziaren egoitza Lesakan egonen da, baina Pedro Irisarri arduradunak azaldu duenez,

«gauzak hain abudo egin dira, lokala hartzeko eta prestatzeko astirik ere ez dugula izan». Honela, momentuan ostatu batean egonen dira, baina suhiltzaileen egoitzan xokoren bat errentan hartu eta gela pare bat antolatzeko asmoa dute.

AGERRA



Sara kantika, 2 - Agerra auzoa, Bera

Tfnoa: 948 631566

Egunero goizez zabalik Astearte eta ortziraletan, arratsaldeko 5etatik 7etara zabalik Besta bezperetan ere arratsaldetan zabalik

Enkargoak jasotzen dira

Enkargoak uzteko orduak, goizeko 8,30etatik 3,30etara eta kontestagailua 3,30etatik 9etara.



*Arraindegi
berria*

Bidasoara oliorik ez botatzeko garbiketa-sistema jarri du Funverak

1852an ola-zaharra ideki zenetik pilatutako zikina garbitu nahi da


ASIER GOGORTZA

Lehendik ere erre-kara isurtzen zituen zinkkeriengatik solasbi-de ugari emana zuen fabrika honek. Denbora batean afera honengatik zenbait salaketa egin ziren fabrikaren kontra, baina gaurko egunerarte ez zen aterabide zehatzik bilatu. Orain dela urte batzuk, 94, 95 eta 96an hain zuzen, Nafarroako Gobernuak ikerketa batzuk egitera behartu zuen Funvera enpresa.

Horrela, fabrikaren gibelkaldean dauden olio gordailuen errebisioa egin zen, eta olio isurria handik sortzen zela konturatu ziren teknikoak. Gainera, 1852tik –orain Funvera dagoen tokian ola zaharra zegoenetik– gasoleo eta olio kutsadura etengabea izandu da fabrikaren azpiko lurretan ere. 1996an ohartu ziren horretaz, baina joan den urterarte ez ziren hasi garbiketa lanak.

Nafarroako Gobernuak ordainduko du

Guztira 15,6 milioi pezeta gusta da garbiketa sistema hau, eta Nafarroako Gobernuak ordaindu du dena. Tomás Barbera izan zen



joan den asteazkenean sistema berriaren funtzionamendua prentsaren aitzinean azaldu zuena. Orain ezarri duten sistema berri honi esker, olioz zikindutako ura garbitu eta deposito berrezi batzuetan pilatu ahal izanen da Bidasoara isuri baino lehen. Barberaren erranetan, Funverako kutsadura kasuarentzat espreski egindako garbiketa sistema da hau, baina fabrikako zinkkerien %100a garbitzeko urte mordoxka beharko direla segurartu zuen.

Ortzirala bitarteko epea eman diote Telletxeari Portugaldik ateritzeko

Portugalgo Gobernuak Joseluis Telletxea beratarri herrialde hortatik aldegeteko “gonbitea” egin dio eskutitz baten bidez. Bere gisa aldegiten ez badu kanporatua izanen dela erraten diote idatzi hortan. Egun hauetan Telletxea eta bere ingurukoek asilo eskubidea eskatzen ari dira gelditu gabe. Horrela, hango intelektual talde batekin batera kanpaina egiten ari da, eta hemendik ere laguntza ailegatu zaio. Izan ere, Berako alkateak Portugalgo Barne Ministroari gutun bat igorri dio Telletxearen asilo eskubidea eskatuz eta han bizitzeko eskubide osoa duela erranez.

Paisanoz jauntzitako Guardia Zibilek herriko gazte batzuk mehatxatu zituzten

Joan den hilabeteko azken asteburuan Altzateko ostatueta paisanozko poliziak jarrera probokatzailen ibili zirela salatu du Berako Herri Batasunak prentsa-ohar baten bidez. Idatzi horretan adierazten denez, Guardia Zibilak «*itxuraz alkoholak eta bertze drogaren batek jota zeuden, eta etengabe gazte euskaldunak zirikatzen aritu ziren*». Gazteek ostatutik alde egin zutenean atzetik segi eta autoaren kontra jarri zituzten. «*Katxeatu, iraindu eta piparekin mehatxatu*» ere egin zituztela salatu du HBk.

«*Euskaldunok badakigu biolentzia iturri diren jendaje horiek Euskal Herritik bidali arte ez dela pakerik izanen. Aski da! Alde hemendik!*» horrela bukatzen da oharra.

flash

Ttipi-ttapa TB Alkaia eta Zalainen...

ere ikusten ahal da orain, Deskargako kaxkoan jarri den antenari esker. Zalain Zoko, Zalain eta Alkaia 32. katelean sintonizatuko duzue TTIPI-TTAPA TELEBISTA. Hala ez bada deitu lasai 948 631188 telefonora.

Diru biltzea

Beran, TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN alde bildu nahi diren 2,5 milioitik 1,1 bildu dira, % 40 hain xuxen. Zuk ere zure laguntza eman nahi baduzu eta diru eske etxera inor etorri ez bazaizu, Herriko Etxean dagoen TTIPI-TTAPAREN bulegotik pasatu edo bankuan sartzen ahal duzu oraindik.

Zortzi postu kontrapasarako

Kontrapasan ehizatzeke zortzi postu paratu dituzte Beran: Erdiko Mugan lau eta bertze lau Santa Barbaran. Ehiztari bakotzak lau uso hiltzen ahal ditu eguneko.

Udal Zergak:

Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea martxoaren 31n akautuko da. Egun horretatik aitzinera ordaindu ez duenari exekutibo bidez ko-bratuko diote, erre-kargu eta interes zenbaitekin, gainera.

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxo eta sintasola.
© 948630941 • 948631137 • BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

ULAIK
ileapaindegia
Kanttonberri, 4 • BERA
Tel.: 948 631427

ULAIK
© 948631076 • BERA

LESKA

Beti Gazte elkartearen urteko batzarra ortziralean egingen da

Omenaldi ederra eskaini zitzaien munduko sokatira txapelaldune

AITOR AROZENA

Ortziral honetan, martxoak 12, Beti Gazte elkartearen urteko batzarra egingen da Alondigako egoitzan, arratsaldeko 7,30etan lehen deialdian eta 8etan bigarrenean.

Beti bezala, joan den urteko akta irakurriko da, onespina emateko. Gero, iaz egindako ekitaldiak eta kontuen balantzea emanen da. 1999ko ekitaldiak eta aurrekontua aztertu ondotik, eskaera judizialen informazioa emanen da eta zuzendaritza batzorde berria aukeratu da. Eskari-galderak izanen dira azkenik.

Sokatira taldeari ongietorria

Bertzalde, Beti Gazteko kontuekin segituz, ezin aipatu gabe utzi martxoaren lehen sokatira taldeari egindako omenaldi hunkigarria. Irlandako munduko txapelketatik urrezko eta brontzezko dominarekin etorri ziren herriko tiralariak. Plazan bildutako jendetzak txaloz agurtu zituen kirolariak, musika bandak Beti Gazteko himnoa jotzen zuen bitartean. Herriko Etxean harrera egin zitzaion taldeari. Gero, kioskora joan eta alka-



Beti Gazteko tiralariak podiumeko gailurrean Irlandan.

teak garaipen hau lortzeko egindako lana eta sakrifizioa eskertu zien. Izan ere, «*Lesakan orain arte inoiz ez zen munduko txapelik lortu, ez kirolean, ez bertze deus-*

tan». Tiralariak urteotan beraien ondoan egon direnei eta plazara hurbildutakoei eskerrak eman zizkieten. Endika Mendegiak aurraskua dantzatu zuen txapel-

dunen omenez eta ondotik, berendua izan zen Beti Gazteren egoitzan. Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak ere zoriondu zuen taldea.

17. Txoko-Txiki ipuin eta bertso lehiaketa antolatu du Tantirumairu ikastolak

Tantirumairu ikastolak hamazazpigarren aldiz antolatutako Txoko-Txiki ipuin eta bertso lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik dago martxoaren 22a arte. Lehiaketa hauetan sei eta hamabi urte artean duten lesakar guziek parte hartzen ahal dute.

Ipuinen gaia librea

izanen da. Lehen eta bigarren mailako ikasleek guttienez orrialde bateko ipuina egin beharko dute. 3. eta 4. mailakoek orrialde terdi guttienez eta 5. eta 6. mailakoek bi orrialde.

Bertso lehiaketari dagokionez, bi gaien artean aukeratu beharko dute partehartzaile-

ek: Laborategian sartu zara, zer asmatuko zen nuke edo liburutegian zauden sagu bat zara. Lehen, bigarren eta hirugarren mailakoek bertso bat edo bi koplak egin beharko dituzte. Laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoek, berriz, bina bertso edo launa koplak osatu beharko dituzte.

flash

Nafarroako Bertsolari txapelketa

Finala martxoaren 21ean izanen da udal pilotalekuan. Oraindik ez dakigu finalisten izenak, baina parte hartzen duten lesakar guztiak (Estitxu eta Manolo Arozena, Estitxu Fernandez, Xabier Silveira, Iñigo Olaetxea eta Juan Mari Lopez) finalerdietan daude. Ea dendak finalean ikusten ditugun!

ttipi-ttapa telebistaren

dirulaguntza kanpainan mottel doa herrian. 1.956.000 pezeta biltzea zen helburua eta 788.000 bildu dira (%40). Oraindik bada laguntza emateko aukera eta elkarretara ere egin da eskaria.

Sendabelarren tailerra

Herri Eskolak sendabelarren tailerra antolatu du, Herriko Etxearen laguntzaz. Lau orduko hamabortz saio egingen dira ortziral arratsaldetan (guzira 60 ordu) eta Laura Gurmindo izanen da irakaslea. Matrikula Izarra okindegin egin behar da martxoaren 15a baino lehen, 15.000 pezeta ordainduz. Tailer honen, saio praktikoa eta teorikoa izanen ditu eta gaztelaraz egingen da.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESKA

BITTIRIA HARATEGIA
© 948 627555
Bittiria, 43 • LESKA

Lurrindonda
Marian Mendiberea
Estetika
Behoko Plaza 8 © 948637791 • LESKA

IRU BIDE
ERRETEGINA
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

M. Manuel Zamorano
Bernizadurak
Pintura orohar
Bittiria, 37 • LESKA • ☎ 989 042 671

ETXALAR

Herri sarrerako errepidea moldatu beharra dago

Hala adierazi dio Udalak Nafarroako Gobernuari

PELLO APEZETXEA

Herriatik hasi eta ia Añegiraino dago bideko zola aski hondatua, nahiz eta, behin hasiz geroz, Bidatzerdi pare-raino berri beharko luketen. Izan ere, lehen haratainokoa berri zuten, bidegurutzetik hasita. Udalak Gobernuari moldatzeko eskatu dio.

Zugarramurdiko bidea

Zugarramurdiko biderako ere dirulaguntza eskatu du Udalak. Lehen ere galdetu eta ukatu egin zuten, bide hori ez baitu bere gain hartu nahi Gobernuak. Herriarentzat, ordea, za-

ma haundi samarra da, oraingoan bertan 59 milioi beharko baitira moldatzeko. Bide hau herri barrenerako baino kanporako gehiago erabiltzen denez, Gobernuak behingoan bere esku har dezala espero da.

Nekazariendako bulegoa Etxalarren ez ireki nahi

Lesakan eta Beran ireki nahi du Gobernuak nekazariendako zenbait zerbitzu emanen dituen bulegoa. Udalak Etxalarre ere astean egun batez bederen etortzeko eskatu zuen, Lesakan baino nekazari gehiago dagoelako. Gobernuak, ordea, lehengoan segi-



Urrezko Ezteiak

Domekeneko Antonio Ameztoui eta Pakita Danborienak, eta Landaburuko Bordako Jose Mari Danboriena eta Puri Danborienak beren ezkontzako 50garren urtemuga bete dute. Urrezko ezteiak deitzen direnak ospatzeko, otsailaren hondarreko egunean bildu ziren, mezan lehenbizi, eta bazkarian gero, hainbat seme-alaba eta ilobarekin.

tzen du, Lesakan eta Beran aski dela. Udalak, hala ere, berriz ere lehengo eskaria egin du, hemen ere astean behin bulegoa irekitzeko. Eta arrazoiak eman ditio

Gobernuari: nekazari kopuruaz gainera, autorik gabeko nekazariak badirela, eta errazago dela bat hunat etortzea aunitz kanpora joatea baino.

❖ **ttipi-ttapa telebistaren** aldeko laguntza kanpaina aitzinera doa eta ongi: 76 lagunek eman dute eta milioi bat pezetara hurbildu da Etxalarren bildutakoa.

XATUBETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

ANA
Janaridenda
 Bittiria, 41 • © 948637944
LESAKA

Xingil
ileapaindegia
 ★★★★★★
 © 948631462 • Altzate I • BERA

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
 © 948635290 **ETXALAR**

« **USOA** »
 NEKAZARI KOOPERATIBA
 Ganaduentzat pentsurik egokiena
 Tfnoa: 948635214
ETXALAR

KOXKILA OSTATUA

 Zarandia, 4 - LESAKA

LEGARRA
 Legarra, 9 • © 948 637 030 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espirealean ere egiten dira

HARITZPE
 948635235
 948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

IGANTZI

Biltokiko aretoak moldatzeko erabakia hartu zuen Batzarreak

Oskar eta Imanol Telletxeak urrezko domina Munduko sokatira txapelketan

OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 20an izan zen Biltokin urteko batzarre nagusia. 220 bazkideetatik 80ren bat agertu ziren bertara eta lokalak moldatzea izan zen hartutako erabakirik garrantzitsuenak. Horretarako, proiektua prestatuko du Juntak, eta, beharra ikusiz gero, batzarre berezia deituko du onartzeko. Bertalde, hauexek izan ziren hurrengo bi urtetan Juntaren barrenean lanean aritzeko aukeraturako bazkideak: Lehendakariordea, Juan Ramon Retegi; Idazkaria, Ana Jose Irigoien; Diruzaina, Axun Iribarren;

bokalak, Juan M^a Arburua eta Bittor Txoperena.

Neguko mus eta partxis txapelketak ere burkatu dira Biltokin. Otsailaren 27an izan ziren finalak eta hauexek emaitzak: Musean, Antonio Iguzkiagirre eta Primi Zubeldiak eraman zituzten txapelak, M^a Paz Petrikorena eta Anuntxi Txoperenari finalean irabaziz; Partixean, M^a Paz Petrikorena izan genuen berriz protagonista, orain txapela M^a Luisa Etxeberriarekin batera irabazteko. Axun Iribarren eta Pili Iturbide gelditu ziren bigarren. Orain denak burutan sagardotegiko afaria.



Oskar

Pilotalekuaren inaugurazioa

Denbora ezin aldrebesagoarekin burutu zen inaugurazioan, Manolo Arozena izan zen ekitaldi guzietan sarrera emateko arduraduna. Ramon Retegi Alkateak bere hitzaldian proiektua aintzineratzen lagundu duten guzietan eman zizkien eskerrak –bertako harrobia atzundu zitzaion nonbait, eta hemen aipatzea eskatu digu–. Orain ahalik eta gehien erabiltzea bertzerik ez zaigu falta. Argiteria erabili nahi duenak ostatu guzietan arrautuko ditu fitxak: argi erdia paratzeko 500 pezetako fitxa bat beharko da eta osoarentzat bi.

Zuhaitz landaketa

Otsailaren 12an haurrek egitekoa zuten zuhaitz landaketa martxoaren 2an egin zen azkenean, Juanjerinborda ondoan. Eguraldi ederrarekin, iaz paratutako ondo-ondoan landatu zituzten 80 haritz-amerikano. Iaz gurasoen partaidetzarekin ez bazen kexatzerik, aur-

ten zer erranik ez!

Eskola eta haurrek ari garenez, Guatemala bi proiektu haurrek emandako dirulaguntza aipatuko dugu. Inauteetako eskian bildutako dirutik eta bakoitzak bere eltxetxotik ekarritakoarekin 60.000 pezeta inguru bildu zituzten Beran egindako erakusketaren

arduradunei emateko.

Oskar eta Imanol Telletxea

Zorionak hemendik ere Irlandan jokatutako Munduko Sokatira Txapelketan parte hartu duten bi herritarrei: Oskar Telletxea herritarri, eta, lesakarra izanik ere, herrian bizi den Imanol Telletxeari.

Ostargi Optika

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Hurrei errebisioa egiten zaie

**Eta behar izanez gero...
ERA GUZTIETAKO
BETAURREKOAK TOPA
DITZAZKEZU**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 63 07 53

BERBIZUN

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadoreak

Igantzioko Bentak • ☎ 948627572 • Faxes: 948637313

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

koxkonta

SAGARDOTEGIA ZABALIK

Paregabeko idi-txuletak

Deitu erreserbak egiteko

Foto Goiko

Otsango auzoa, Tfnoak: 948627503/948627519 • **LESAKA**

LESAKA

ARANTZA

Korrika Kulturalaren barnean hainbat ekitaldi izanen dira asteburu honetan

Ortziraleko euskal selekzioari buruzko mahainguruarekin hasiko dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

Korrika Kulturalaren barnean hainbat ekitaldi izanen dira asteburu honetan Arantzan.

Ortziralean, martxoaren 12an, euskal selekzioari buruzko mahaingurua izanen da Zahar Txokon. Donato Larretxea aizkolaria, Ibon Urbietarra arraunlaria, Iñaki Perurena harrija-sotzailea, Inaxio Errandona pilotaria, Mikel Uzkudun (ESAIT), Sakanako sokatira taldeko ordezkari bat eta Joxelu Retegi, Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria etorriko dira. Moderatzaile lana Koldo Aldalur kazetariak beteko du. Gero afora izanen da.

Larunbat arratsaldean Korrika Ttikia egiten da. 6etan txokoltea banatuko da eta gero karrrika antzerkia izanen



UEMAko kideak igandean bilduko dira Herriko Etxean.

Artxibokoa

da. Gaueko 10,30etan kontzertua hasiko da frontoian, Gestionik eta Joxe Ripiau taldeekin. Sarrera: 500 pezeta.

Jakina denez, herriak omenaldia jasoko du igandean, euskara bizibizi mantentzeagatik.

Goizeko 10etan UEMAko kideak bilduko dira Udaletxean. 11,30etako ekitaldi instituzionalaren ondoren Iparraldeko Jokoak izanen dira ikusgai, Jatsu eta Gabadiko taldeekin. Trikitilariak eta txistu-

lariak karririkaz karririkaz ibiliko dira goizean. 2etan herri bazkaria izanen da Aterpen. Txartelak dagoeneko herriko ostatuetan salgai daude. Bazkalondoren kantariak eta Olatz eta Leire trikitilariak ariko dira.

Foresna-Zurgaia

Foresna-Zurgaia Nafarroako Baso Elkarrekin herriarrei bere laguntza emanen die plantazioak egiterako orduan. Hori dela eta, otsailaren 23an solasaldia izanen zen Herriko Etxean. Martxoaren 12an, eguerdiko 12etatik aitzinera, Herriko Etxean bertan dirulaguntza hauek eskatzeko epea irekiko da.

TTIPI-TTAPA TELEBISTA herri guzian

Otsagarran paratutako antenari esker, lehen ikusten ez ziren auzoetan (Eguzkia ldea, Bordalarrea eta herriko zenbait etxetan) ikusten da TTIPI-TTAPA TELEBISTA. Dirulaguntza kanpainari dagokionez, 516.000 pezetako helburutik 408.000 pta bilduko dira. Oraindik bada laguntzeko aukerarik.

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA

☎ 948630155
BERA

ZALAIN
JATE TXEFA

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

ttipi-ttapa internet

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

ERROTAZAR

Ertegarra 3 • Tfnoa: 948 630 198 • **BERA**

ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

PIKABEA
Molinero drogerian *pinturak*
galdetu

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 • **BERA**
☎ 948 630 763

SUNBILLA

Martxoaren 26tik 28ra izanen da Antzakaitz taldeak antolatutako Kultur Asteburua

Adin guzietako jendeari zuzendutako ekitaldiak plantatu dira

JAIONE ETA ALBA

Dagoeneko prest dago aurtengo Asteburu Kulturaleko egitaraua. Antzakaitz kultur taldeko kideak denen gustokoa izateko ahaleginak egin dituzte, beraz badakizue, ongi pasatu hiru egun hauek. Bertso afarira joan nahi izanez gero, Ulibeltzak elkartearen eman behar da izena eta pala edo frontenis txapelketan parte hartu nahi duenak Fonda ostatura jo beharko du. Aldaketaren bat izanez gero, hurrengo alean emanen dizuegu honen berri.



Bertze hainbat ekitaldiren artean mus txapelketa izanen da aurten ere.

Artxibokoa

**EGITARAU ZABALA
MARTXOAREN AZKEN
ASTE HONDARREAN**

Hona hemen asteburuko ekintza guziaz:
Martxoak 26an, ortzirala, arratsaldeko 4etan Gindal ibiltokian,

haurrendako jokuak; ginkana 8 urtetik goitikoentzat eta betiko jokuak gaztetxoentzat. 6,30etan Herriko Etxean txokolatada jokuetan parte hartu dutenentzat. 9,30etan, Ulibeltzak el-

kartearen bertso afaria Sebastian Lizaso eta Estitxu Arozenarekin. Ondoren, Mikel Salaberriekin dantzaldia goizaldera arte.
Martxoaren 27a, larunbatean, 10etan goi-

ko eskolan, haurrendako eskulan tailerra (buztina, maskarak, txo-txongiloak...). 12etan Ulibeltzak elkartearen haurren idazlanen sari banaketa. Ondoren, haurrek antzerki, kan-

taldi edo dantzaldia egingen dute. 3etan pilotalekuan, sei orduko pala txapelketa. Hiru kategoriaz izanen dira: gizonen, gazteak frontenis eta emakumeak frontenis. Ondoren triki-poteoa egingen da Mikel Salaberriekin musikaz alaiturik herriko ostatu guzietan barna. 12,30etan, Fondako kanpoaldean gaupasa Jator taldearekin. Eguzian Ulibeltzak elkartearen herriko emakume eta gizonen egindako eskulanen erakusketa zabalik egonen da.

Martxoaren 28an, igandean, goizeko 11tan, Ulibeltzak elkartearen mus txapelketa jokatu da. 5etan pilotalekuan aizkora apustua: Arrospide Olasagastiren aurka. Ondoren, sari eder baten zozketa egingen da.



MARTIKO

*Gure baserrietako
produktuak*

© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**



© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN



**CAMPING
ARIZTIGAIN**

San Jose egunean zabaltzen dugu eta txokolatea emanen zaie hurbiltzen direnei

Zubizargaina baserria
© 948. 45 05 40
SUNBILLA

DONEZTEBE



Aste Zuria Doneztebeko ikastetxean

Lehenengo eta Bigarren DBHko ikaste eta irakasleek Isaban pasatu dute otsailaren 7tik 12rako astea. Arras ongi pasatu dute, elur aunitz izan baitute. Isaban bertan, herrian ere elurra izan dute eta mendian hogei zentimetro inguruko sakonerakoa. Ohikoak diren modalitateetaz gain, zenbait ikasle eta irakasleek ipurdi-eskia ikasi dute.

osagarrietan borrokan ari diren jokalaria ezin dira begi bistatik galdu. Goleatzaile onenen artean, Urkiola beratarrak 19 gol egin ditu eta Elgorriagako Mariezkurrenak 14. Atezainik onena, momentuz, bordatxoko Castilla da, 11 gol bertzerik ez baitizkiote sartu eta Txokotoko Franzesenari 13. Jokalari onenaren lehian ere Urkiola doa aitzinetik 11 punturekin, baina hurbilean ditu Belarra (12 Ostatua) eta Bordatxoko Zamora, hamar-punturekin.

Jubilatuaren Egoitza

Doneztebe-Malerrekako Jubilatuen Elkar-teak jakinarazi duenez, Doneztebeko Jubilatuen egoitzako ostatu-jate-txean arduradun berriak izanen dira martxoaren 10etik aitzinera. Lokala errentan hartzeko interesa dutenek lehenbait-lehen aurkeztu beharko dute eskaera. Bete beharreko baldintzak jubilatutako elkartereko bulegoan daude. Bertzenaz, Julian Artazkoz lehen-dakariarekin (948 450155) edo Jose Rios idazkariarekin (948 450396) telefonoz harremanetan jarri.

Ostatu-jate-txea Doneztebe erdi-erdian dago, plazoleta berri-tuaren aitzinean eta elizako atearen ondoan.

Areto-futboleko 7. txapelketa azken txanpan sartu da

Hasierako hamalau taldeetatik zortzi gelditu dira final laurdenetan

PATXI IRIARTE

Areto-futbol txapelketako lehendabiziko fasea ikusgarria izan da, finalaurdenetako zortzi postuen bila hamalau talde baitzeuden borrokan. Talde berrien artean, Berako Errekalde ostatua nabarmendu da, baita Elizondoko Txokoto ostatua ere. Gaur

egun txapelduna den Titi Ostatua ere ongi aritu da, baina bi urtetan lehendabiziko aldiz partidu bat galdu eta bertzea berdindu du. Beraz, bere neurriko zapata harri-rapatu dutela erraten ahal da. Honek, noski, emozioa emanen dio txapelketari. Hau idazterakoan, finalaurdenetako leku bat falta da

erabakitzeko B multzotan, Donezteko 12 Ostatua eta Ziga Juniors taldeen artean erabakiko dena. A multzoko Kaifas Club, Arraioz, Elgorriaga eta Bordatxo eta B multzoko Errekalde, Txokoto eta Titi, azken laurdenetan daude.

Lehendabiziko fasean ikusitakoaren arabera, igande honetatik ai-

tzina partidu ikusgarriak ikusiko dira, kanporaketa gisara jokatu bako baita. Hemendik aitzinera ez da akatsik onartzen. Heldu den urtera arte kanpoan gelditu diren Itxasurak, Zubietako Herriko Ostatua, Sunbilla edo NARBARTE taldeak ez ditugu aipatu gabe utziko.

Eraberean, sailkapan



Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

Iberrala Martxaria
Martxoaren 10etik
0-14 urte
Martxoaren 10etik

MALERREKA

Andres Iñigo iturendarra euskaltzain izendatu dute

Korrika martxoaren 13an igaroko da Malerrekatik

IBAN ISASI

Andres Iñigo Ariztegi, 54 urteko ittundarra Euskaltzaindiako kide izendatu zuten Baionan, otsailaren 26an egindako batzarrean. Iñigok, joan den urteko azaroaren 15ean hil zen Federico Krutwig zeneren lekua beteko du. Baionako batzarrak gehiengo osoz onartu zuen Iñigo euskaltzain berri gisara. Agertutako 21 euskaltzainetatik 23 dira guzira 18k aldeko botua eman zuten eta hiruk xurien bozkatu zuten. Andres Iñigok zortzi hilabeteko epea izanen du kargua hartzeko eta horretarako sarrerako lana «Onomastikari buruz idatzi beharko du. Andres Iñigok adierazi duenez, «euskarren munduan hainbat urte dituen norbaitentzat pausurik inportanteena da hau, Euskal-



Andres Iñigo, Iturengo euskaltzaina

tzaindiaren lanean zuzenago aritzeko aukera ematen baitu».

Andres Iñigo Geografia eta Historian lizentziatua da eta Filo-sofia eta Letretan dok-torea. Hilbeltzaren 22a arte Nafarroako Euskara

Kontseiluko kidea izan da. Egun horretan dimisioa aurkeztu zuen, Kontseiluko bertze hameka kiderekin batera.

Korrika

Martxoaren 13an Korrika afaria izanen da

Aurtizko ostatuan. Izena emateko Aurtisko ostata deitu behar da (948 450477 telefonoa). Malerreka osoko euskaltzaleentzat zabalik dago izen-ematea.

Martxoaren 23an, asteartea, arratseko 9,30etan pasatuko da Korrika Iturendik.

Sagardotegira autobusa

Martxoaren 19an sagardotegira bidaia eginen da, Ibintza Kultur taldeak antolatua. Bidaia autobusez eginen da eta seguraski Berastegira joanen dira, bestak baitira.

EHren batzarra

Martxoaren 13an, larunbata, arratsaldeko 7,30etan Euskal Herri-tarrok taldeak batzarra antolatu du Iturengo Herriko Etxeko ganbaran. EH eta hauteskundei buruz ariko dira.

Donamaria ez da Telefonicarean liburuxkan ageri

Azalean Nafarroa hitza bakarrik –Navarra ondoan jarri gabe, alegia– agertzen zela eta hainbat iskanbila sortu zituen Telefonicak argitaratutako listinak. Liburuxka hura erretiratu eta eredu elebiduna banatu zuten. Oraingo liburuxka honetan, ordea, akats larriagoa bat egin dute, Donamariako biztanleentzat batez ere: beraien herria ez da inon ageri, berez duen izenarekin behinpein. Donamariako telefonoen berri jakin nahi duenak «Bentas (Donamaria)» bilatu beharko du.

Oihan lanetarako dirulaguntzen tramitazioa

Foresna-Zurgaia Nafarroako Baso Elkarteak oihan lanak egiterako orduan dirulaguntzak tramitatzeko aholkua emanen du. Zubietako udaletxean martxoaren 16an, asteartea, izanen dira eta Doneztebeko udaletxean, martxoaren 17an.

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN • ☎ 948 450 491

ttipi-ttapa internet

helbide berriak

Internet: jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com



APEZTEGIA BERRIA
BURDINDEGIA

Baratzerako behar dituzun erreminta guziak

Elizagibela, 1
31740 DONEZTEBE ☎ 948 450 994



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Gehigarria

Laborarien kantuak

- 1 Mila pasata bederatzi ehun hogeita sei urte da salbatzailea etorri zela bekatarien artera sendimenduak bertsu berrian orai noa erratera geroztik huna jende gaixtoen arraza galdu ote da.
- 2 Lehen hemeretzi pasatu dira hau hogeigarren mendea aunitzek diote norat goaz gaixtotua da jendea egiak ditut publikatuko gezurra balitz hobea neronek lehenbizi urrikari dut langile miserablea.
- 3 Mundu hau balitz zabalagoa halere gehiago galde desira dugu neke gutirekin gauza guzia debalde gure tartera heldu ez bada gaitz gaixto eta uholde nahi eza ez oraindikelgarrentzat hasi beharrak gerade.
- 4 Kapitaliztak dira gradutan jende pobrea soldadu partikulazki laborariak kontrario sobra du aberats puxant errege haundi dutenak hoinbertze gradu denak goseak hil behar dute lurak emaiten ez badu.
- 5 Gure Jainkoak zabaldu zuen oihal ederra hau da lurra eta berritz ere baluke lana zuzentzekotan makurra fede onean bizi garenak jende gaixtoen beldurra egiak ez du gehiago balio nausitua da gezurra.
- 6 Adinak, gaitzak eta aizkorak bakandu ditu oihanak horiek guretzat utzi zituzten orain mundutik joanak gure aldetik landa ditzagun ondokoentzat ordainak hori egiten ez bada gure semeek zer lana.
- 7 Belarar bezain usu atera zaizkigu etxe berriak ertxi ta labor altura guti iduri xori kafiak horietan nahi ta ez bizi beharko duten familia ttikiak horra zer gisaz apaindu diren Euskal Herriko tokiak.



**Olandeiko
Fifinen
eskutik**

Armorako Maixani eskainiak

Senperen Gaxinabordan sortua Ziburun bizi den J.B. Tapiaren ahotik

Airea: «Saratarra naizela»

- 1 Ezkontzeko hasia hau da desgrazia (bis) muthil faltsuarekin tratatzen hasia Ni fida nintzen baino haren malezia horrengatikan nago bazterrera utzia publikatzera noa afera guzia.
- 2 Mutil kuriosa alto ta gizona (bis) ikustera jiten zautan ahal zuen maizena ni ere haren etxean bietan izana geroztik urrikitan egoiten naizena ez bainuen uste zela holako gizona.
- 3 Errematismoarekin eri naiz egotu (bis) orduan ikustera ez zautan agertu Erietara goizik behar zuela sartu sinesten nihozkan eta aise nau tronpatu nere bihotz gaixoa daut gogor kolpatu.

Muntra eta erreztuna
linga eta baxera
arno eta azukre
jaunari eskerra
gostairik genituen
bilduak etxera.

...
...

12 bertsu zituen kantu honek, J.B. Tapiak buruz eta gogo onez eskaini dizkigu lau hauek.



Bertze kantu bat burutu gabe

Gau ilun batez uste gabean lo zagolarik bere ohantzean Arrano bati lotu zitzaizkon berrehun bele batean gosta zaiote ezin haurdikiz hoinbertze etsai bertzen artean hegal bat ere kendurik utzi halere dabil airean.

Eskas diren bertsuak, dakienak igor ditzala ttipi-ttapa edo berdin Oxtikenearat

erakaskuntza eskuaraz

ZALDUBI IKASTOLAZ DATU ZONBAIT

Heldu den irailean 30 urte beteko dituen ikastola hunek aurten 45 ikasle euskaraz eskolatzen ditu 2 urtetarik 11 urtetara. Azken hogoi urte hauetan baditu goiti beheiti frango bizi izanik bai egoitza baten ukaiteko eta bai haur kopuru egoki baten mantentzeko.

1990az geroztik, Senpere erdi-erdian kokatzen da Herriko Etxeko lokaletan. Horrek estabilitatea eta eza-gupena ekarri dio.

Bertze garrantzizko urratsa, 80. hamarkadan eman zen ikastolan lehen maila idekitzean, haurrei CM2 maila arte herrian berean euskaraz eskolatua izateko parada eskainiz. Geroztik, CM2 mailatik ateratzen diren ikasle gehienak Seaskako kolegiotan sartzen dira.

Erran daiteke, ikastola huntan orokorki familia euskaldunak dire (aurtengo adibidea hartuz 30 familietarik 6 baizik ez dira erdaldunak). Honek eragin handia badu haurren ikaste prozesuan. Haur erdaldun batek ama eskola bururatzean euskara menperatzen du.

Ikastolako hizkuntza eus-



Urdazubi, Sara eta Senpereko haurrak Zaldubi ikastolan

kara da eta ez da bertze ikastola batzuetan bezala haurrekin lan berezirik eraman beharrik euskaraz mintza daitezen elgarren artean. Bistan dena euskararen kalitatea ez da ahanzi behar eta hortan kokatzen da eskola proiektua Senperen.

Senpereko Zaldubi ikastolan gai guztiak eskuaraz erakasten dituzte. Halere frantsesa ere ikasten dute haurrek CE1 klasetik goiti. Helburua bi mintzairak untsa jakitea

baita, gero eta frantses gehiago erakasten zaiote haunditzen direlarik. Ikastoal eskual eskola da eta dena gure mintzairan egiten da; kirola, dantza, bertsoaritzza, haurtzaindegia goiz eta arratsetan, bai eta ateraldiak Sarako piszina ala Angeluko lerratokirat.

Aipatzekoa da burasoek ere zuzenean parte hartzen dutela ikastolaren bizian. Senperen pedagogia talde batek lan egiten du, hunen ondoan besta batzordea dirua

biltzen duena besten denboran, beti ere euskal kultura hedatuz.

Zaldubi ikastolako atea erdaldunentzat ere idekiak dire. Eskuara ez dakiten familiek ere tokirik badute ikastolan. Halakoetan posible dute eskuara ongi ikastea. Gaur egun hiru andereñoek lan egiten dute Zaldubi ikastolan. Eskola hau lotua da 1969an sortu zen Seaska Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioarekin.

AEK: SENPEREKO GAU ESKOLA

Senpereko Gau Eskola 1985ean sortu dute herriko euskaltzale batzuek. Xedea da eskuara helduei erakastea. Orain haurrek eskoletan ikasten ahal dute bainan burasoek ere toki bat behar dute mintzairaz jabetzeko. Denbora berean, AEK elkarteak laguntza ekarki du euskaldunek eskribatu eta irakurtzen ikas dezaten.

Aurten Gau-eskolak 12 ikasle biltzen ditu Elkartearekin, 2 erakasleen inguruan.

Hiru taldetan banaturik, lau orenez erakasten da eskuara aste oroz.

Horren ondoan AEK batasunak bertze aktibitateak ere proposatzen ditu: ateraldiak, EKIA txapelketa eta Korrika. Lasterkaldi hau justuki, aski fite izanen da Euskal Herria osoan, martxaren 19an Iruñatik abiatuz, 28an Donostian bururatzeko. Korrika Senperen pasatuko zaigu 20an... goizeko 5,40etan Zuraidetik etorriko da eskuararen lasterkaldia Sararat ganez. Besta eder hau denei idekia da.



Euskara erakatsi eta ateraldiak: AEKren lana. Gan den udan talde batek Bilboko Gugenheim bisitatu du.

erakaskuntza eskuaraz

SAN JOSEP ESKOLA PRIBATUA "EUSKAL HAZIAK"

San Josep, Senpereko eskola pribatua da, hiri erdi-erdian kokatzen dena. Gaurko egunean 190 ikasle biltzen ditu orotarat ama eskolatik CM2 klaseraino, erran nahi baita 11 urte bete arte ikasten dela hor.

San Josepen gela elebidunak 1985garren urtean ideki dituzte eta 190 ikasleatarik 80 hartan ibilki dire. Astean 12 oren eskuaraz ikasten dituzte, bertze 12 erdaraz. Ikasleei gaiak aldatzen zaizkiote eta historia-geografia, matematikak ala zientziak eskuaraz ikasten ahal dituzte. Gela elebidunak poliki zabaldu dituzte, untsa finkatuz beti ere. Azken urte hauetako lanaren bilana aski baikorra egiten du Marie-Jeanne Lasaga zuzendariak. «*Batzuetan lana izaten da burasoak uzkur direlako bainan azkenean hurrek ikasketak aski ongi segitzen dituzte*». Lasaga anderearen arabera espirituaren gimnastika ez da nehorrentzat kaltegarria, gu-



tiago gazte diren ikasleentzat. Eskuaren erakaskuntza segurtatzeko 3 erakasle lanean dabilta, 2 denbora osoz, bertze 1 denbora erdiz.

Senpereko San Josep ikastetxea Euskal Haziak Federazioaren partaide da. Hunek gela elebidunak kudeatzen ditu Ipar Euskal Herriko eskola girixtinoetan. Orotarat kasik 1.000 ikasle biltzen dituzte Iparralde osoan.

Iraganari begira bilan ona baldin badute San Josepeko

gela elebidunek, geroa ere segurtatua dute. Arretxea herriko kolegioak eskuaraz erakatsi nahi lituzke historia eta geografia ondoko urteetan. Marie-Jeanne Lasagarentzat hau berri biziki ona da, «*indarra, segida eta logika emanen baitio gela elebidunen sistemari*».

Geroari begira beti ere, ez da bazterten ama eskola osoki euskaraz izatea. Entseguak egin dituzte ondoko herrietan eta esperientziak aski bai-

San Josepeko txikienak

korrak dire. Mementuan ez da halakorik izanen Senperen, bainan administrazioak segurtasunak emanen dituelarik imersioaren sistema zabalduko dute.

Eskola girixtinoko arduradunak horren alde dire, segur direlako elebitasuna ona dela haurrentzat. Orain arte ikusi dituzten emaitzek baikortasuna ekarri dute.

ESKOLA PUBLIKOA

Eskolan 180 haurretarik, 110 gela elebidunetan dira. Urtero, gero eta gehiago euskaraz ikasten dute. Ama eskolatik hasten dira (3 urterekin) CM2 arte (10,11 urte).

Egunero hiru oren dituzte euskarazko irakasle batekin: matematika, zientziak, artegintza, kirola, musika, gizarte hezkuntza euskaraz ikasten dute eta euskara hizkuntza bezala ere bai (bi oren astero). Beste gaiak (frantses hizkuntza, historia eta geografia) frantsesez ikasten dituzte. Gehienek euskara eskolan ikasten dute, etxeoak ez direlako euskaldunak. Batzuek dute aita edo ama edo

amatxi-aitatxi euskaldunak.

Gero Kolegioan (6garrenean) Donibane Lohitzuneko Ravel ikastetxean aukera dute gela elebidunetan segitzea. Aurten gehienak harat joanen dira.

Eskolan, 3 euskarazko irakasle dire eta zazpi frantses irakasle. Senpereko eskola publikoak urtero ateraldiak antolatzen ditu, mintza praktika egiteko.

Adibidez, ama eskolako haurrek (4-5 urtekoek) bidaitxo egiten dute hiru egunez. Hizkuntza lantzeko baliagarria zaie. Honela, euskaraz bizi dira. Joan den urtean Arantzarat (Nafarroa) joan zen talde bat, ihauteriak ospatzeko.

Gero, urtean zehar, antzo-



kira edo museora doaz. Beti saiatzen dira euskaldunak atxematea, baina ez da hain errex!

Argazkian Senpereko eskola publikoko gela elebiduneko haur haundienak agertzen dira

erakaskuntza eskuaraz

Katixima ere euskaraz

Senperen, katixima betidanik egiten da euskaraz, baina ez da batere lan errexa izan. Azken urte hauetan, bakotxak bere aldetik, frantses liburuak euskarara itzuli behar izan dituelakotz. Mereximendu haundia dute ixil-ixila lan hau egin duten Senpertar katixima emaileek. Egun, katixima euskaraz zonbat hurrek segitzen duten eta nola pasatzen den jakin nahi izan dugu.



Katixima emaileak

■ *Aurten zenbat hurrek segitzen dute katixima euskaraz?*

Aurten 43 haur ditugu:
8-9 urtekoak (CE2): 18 haur
9-10 urtekoak (CM1): 7 haur
10-11 urtekoak (CM2): 10 haur
11-12 urtekoak (6. maila): 8 haur
Haur hauek, ikastolako edo eskola libroko eta publikoko klase elebidunetakoak dira. Guk ikasturte hasieran euskaraz dakiteneri edo ikasten ari direneri proposatzen diegu katixima ere gure mintzairan egitea, hola hobeki ikas dezaten. Ados badira, euskaraz ikasten dute eta burasoek ez badute nahi, frantsesera pasatzen dira. Guk ez dugu neor obligatzen.

■ *Zonbat irakasle zaizte?*
Orotara bortz irakasle gira. Olivier Zozaya eta Maddi

Mendiburu ttipiekin, Jeanine Leizagoien 9 urtekoekin, José Bourgoien 10 eta 11 urtekoekin eta azkenik, Maddi Valencia ere haundienekin.

■ *Katixima euskaraz egiteko zoin material duzue?*

Lehen, frantses liburuak guhurrek itzultzen ginituen. Orai, badira lau liburu: haur ttipientzat, "Harri xuri", "Mila segetu"; 8-11 urtekoentzat "Aupa Bizia" eta 6. mailakoentzat, "Biziaz Egarri". Bertzalde, badira ere bideoak eta mezetako kantuekin zonbait kazeta.

■ *Astean zonbat aldiz biltzen zaizte?*

Ttipienak hilabete behin biltzen dira. Besteak aste guziz: 8 eta 10 urtekoak asteazkenero eta 11 urtekoak larunbat guziz, 9etatik 11ak arte.

■ *Ze ikasten dute hurrek katiximan?*

Lehenik, eguneko ikasgaia emaiten dugu. Gero, haur bakotxak bere kaieran otoitzak, kantuak edo ebangelioko erranak idazten dituzte eta ondotik marrazki eta koloreekin apaintzen dituzte. Bertzalde, trimestrean bizpahiru aldiz, "Familiako meza" prestatzen dugu. Meza hauek, hurrek antolatzen dituzte bi hizkuntzetan.

■ *Azken sei urte hauetan, urtean behin, Iparraldean katixima euskaraz egiten duten haur denak biltzen dira. Aurten non egingen duzue besta hori?*

Aurten, apirilaren 17an Donibane Garazin bilduko gira, "Larre bidetik itur biderat" lema izanen duen eguna ospatzeko. Egun hortan,

hurrei Jesusen bidea segituz beren problemak nola konpontzen ahal dituzten erakutsi nahi diegu. 10etan ongi etorria ukanen dugu. Gero, txistuak lagundurik Garaziko elizarat joanen gira otoitz egiteko. Bazkalondoan, jokoak izanen ditugu, 16,30etan etxeratik itzuli aintzin. Egun hortako, Manes Hunçan eta Pantxika Solorsanok kantu bat egin dute. Urte guziz bezala, afixako marrazkia Pascal Bourgoinek egin du.

Gaur egun Iparraldean katixima egiten duten 6.000 bat haurretarik 500 ari dira euskaraz ikasten. Katixima euskaraz ematen dutenek hilabete behin elgarretaritzen dira beren formazioa segitzeko. Agian kopuru hori emendatuz joanen delakoan urtetik urtera! ●

JOANA MENDIBURU



Eskualdeko haur kantariak Doneztebeko Bordatxon izanen dute kanporaketa martxoaren 20an

Artxibokoa

Nafarroako Haur Kantari txapelketa hasi da

Martxoaren 20an Bordatxon izanen da kanporaketa saioa

TTIPI-TTAPA

Igande honetan Garesen egindako lehen kanporaketa saioarekin hasi da Nafarroako Haur Kantari txapelketa. Bigarren saioa, Burlatako Kaputxinoen ikastetxean izanen da larunbat honetan, martxoaren 13an; eta hirugarrena, berriz, Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan, martxoaren 20an. Finala

Iruñean egingen dute, martxoaren 28an, Salestarren aretoan.

LEHEN HEZKUNTZA ETA DBHKO IKASLEAK

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatutako txapelketa honetan Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako neska-mutilek hartzen ahal dute parte.

Epaimahaia Amaia Zubiria, Itziar Flores eta Mikel Juanizek osatuko dute. Euskal kantagintza zabaltzea, haurren katurako zaletasuna piztea eta kantuarren bidez haurrak heztea dira txapelketaren xede nagusiak.

Txapelketako abesti irabazleen partiturak Nafarroako ikastetxeetan banatuko ditu Euskal Kantuzaleen Elkarteak.

Goizueta eta Aranoko hizkerak aztergai

Juan Jose Zubiri eta Patziku Perurenak idatzitako liburuan

Martxoaren 2an aurkeztu zen Juan Jose Zubiri eta Patziku Perurenak idatzitako «Goizueta eta Aranoko hizkerak» liburua. Nafarroako Gobernuako Hizkuntz Politika zuzendaritzak eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak liburuaren 700 ale argitaratu dituzte eta 2.000 pezetan salgai egonen da.

Liburua bi zatitan banatua dago. Lehendabizikoa, Juan Jose Zubirik Goizueta eta Aranoko hizkeren ezauga-



Perurena eta Zubiri

rri orokorrak aztertzen ditu. Bigarren zatian, Patziku Perurenak ahozko literatura materiala (bertsoak, kantuak...) bildu ditu.



BERTIZ ATERPEA • NARBARTE • ☎ 948 592322

Martxoak 19-20-21 San Jose	Rafting edo Hidrospeed Piraguismoa • Zaldia
Martxoak 27-28 Murillo Gállego	Rafting • Hidrospeed Garraioa
Apirilak 1-2-3-4 Aste Santua	1 Piraguismo edo Puenting 2 Rafting edo Hidrospeed 3 Kaiñonak + Piraguismo 4 Hidrospeed edo Rafting
Apirilak 10-11	Rafting edo Hidrospeed Puenting I • Zaldia
Apirilak 17-18	Rafting edo Hidrospeed Piraguismo edo zaldia (3 o.)
Apirilak 24-25	Kaiñonak II Piraguismo edo zaldia (3 o.)
Maiatzak 1-2	Rafting edo Hidrospeed Puenting (40 m.)
Maiatzak 8-9	Rafting edo Hidrospeed Piraguismo edo Zaldia (30 o.)
Maiatzak 15-16	Kaiñonen tekniketako ikastaroa edo piraguismo ikastaroa



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



GOIZUETA

Amaia Lujanbio lasterkalariaren karrerak geldiezina dirudi

Nafarroa, Euskal Herria eta Espainiako txapelketak irabazi ditu otsailean

ESTEBAN AROZENA

Amaia Lujanbio Goizueta lasterkalariaren aurtengo otsaila ikaragarria izan da. Iruñeko Pamplona Atletico klubak ordezkatzeko duen neska honek Gipuzkoako Ezkion jokatuak Euskal Herriko kros txapelketa irabazi zuen jubilen mailan otsailaren 7an. Astebete lehenago berriz, junior eta jubencil guzien aurretik sartu zen Nafarroakoan.

Otsailaren 21ean, Anoetako belodromoan pistakorreratu zuen Amaiak, eta han ere bera izan zen Euskal Herriko hoberena 3.000 metroetan. Beraz, urrezko domina eskuratu zuen, proba horren nafarroako marka hautsiz gainera. Garaipen hauek aipagarriak eta meritu haundikoak izan arren, otsailaren 27an Torremolinosen lortutakoak



Amaia Lujanbiok hainbat proba irabazi ditu azken hilabeteotan.

eman dio Lujanbiori ospe gehien. Andaluziako hiri horretan, Espainiako klubetako artako txapelak zeuden jokoen, eta bertan goizuetarra izan zen helmugan lehena. Bigarrenari minutu erditik gora kendu omen zion.

Garaipen zerrenda

luze honen aurrean aurtengo otsaila Amaiarentzat ahaztezina izan dela esanzen luke edozeinek. Atletismoaz asko dakitenek ez dira uste horretakoak, etorkizun oparoa iragartzen baitiote 17 urte bete berriak dituen lasterkalari honi. Beraz, ondorengo hi-

labete eta urteetan beste hainbat titulu eskuratu omen ditu, seguraski, orain artekoak ia deus ezean utziz.

Astean bost egunez entrentzen da Lujanbio Iruñean, bizpahiru orduko saioetan. Halere, gehiago ikasiko ez bada ere, oraindik eusten

dio trikitixa jotzeari. Kontuan izan behar da, zortzi urte zituenetik Amaiak askotan parte hartu duela Nafarroako kantu eta trikitixa txapelketetan. Beraz, aspalditik datorkio neska honi lehiarako gogoia.

Goizueta eta Aranoko hizkeren buruzko liburua

Juan Jose Zubiri eta Patziku Perurenak egin dako «Goizueta eta Aranoko hizkerak» izeneko liburua aurkeztuko dute martxoaren 13an, arratsaldeko 7,30etatik aurrera Umore Ona elkartearen burutuko den ekitaldian. Hurrengo hilean, TTPI-TTAPAK argitaratuko duen gehigarri batean emanen da honen berri luze eta zabal.

Oraingoan, bakar-bakarrik esan dagoeneko Untxalo liburudendan salgai dagoela.

ARESO

Sokatira taldea garaile Euskal Herria eta munduan

Ongietorria eskaini zioten herritarrek

JUANA M^a SAIZAR

Sokatira taldeak kolore guzietako dominak ekarri ditu Irlandatik. Benetan ikaragarria hauek egindako balentria! Mutilen guraso eta ahaideek ongiatorri berezia prestatu zieten.

Herriko jendea eta jarraitzaileak ere zorionak ematera hurbildu ziren. Beharbada giro pixko bat galdu zen, haiek ailegatu ordurako iluntzen hasia baitzen. Josu Etxezarretari zorionak eta esker bereziak eman zizkieten, bera izan bai-

ta duela bost urtetik honera taldeko gidaria. Lore sorta bana eskaini zieten, herriko umeen dantza saioaren ondoren. Gero, afari-berezia prest zegoen azalduko guzientzat. Txapelketaren bideoa ere ikusi ahal izan zen.



Ongietorria eskaini zitzaion sokatira taldeari.

Ongietorria luze joan zen, asko baitzegoen

kontatzeko, galdetzeko, zoriontzeko...

LEITZA

Kirol instalazioen erabilera eta ur-hornidura arautzen duten prezioak onartu dira

Korrikaren ordutegian zenbait aldaketa izan dira

JOSEBA AZPIROZ

Behin betiko onartu ditu Udalak kirol instalazioen erabilera eta ur-hornidura arautzen duten prezioak.

Pilotalekua erabiltezagatik, 16 urte artekoek orduko 200 pezeta ordainduko dute eta zaharragoek 300 pezeta. Pilota ez den beste kirolean arituz gero -futbito...-, orduko 1.000 pezeta ordainduko da. Igerilekuan, udako kuota 3.000 pezeta-koa izanen da haurrentzat, 4.500koa gazteenzat eta 8.500 pezeta-koa helduentzat.

Ur-hornidurari dagokionez, etxebizitzetan, hiru hilabetetan 40 metro baino guttiago erabiliz gero, hiruhilabeteko 771 pezeta ordainduko da. Hortik go-ra, metroko 34 pezeta.

Korrikan aldaketak

Korrika 11ko antolatzaileek aldaketa txiki batzuk egin behar izan dituzte ordutegiari dagokionez. Beraz, aurreko alean eman genuen ordutegia aldatu egin da.



Leitzako emakumeek hainbat ikastaro antolatzeko proposamenak egin dituzte. Nafarroako Gobernuaren erantzunaren esperoan daude orain.

Korrika, martxoaren 23an, arratsaldeko 18:08etan Uitziko gainera iritsiko da eta arratsaldeko 18:45ak alde-ra Leitzatik pasako da. Hemendik Ezkurrako gainera abiatu eta Male-rrekarajoaen da. Ongi dakizuenez, Korrika euskararen aldeko lasterketa eta besta handia da, eta denok gaude bertan parte hartzera gonbidatuta. Parte hartze-ko modu ezberdinak ere badaude: Korrika ber-

tatik pasatzen denean-lasterka eginez, baita Leitzan eginen dituen 11 kilometroetako bat erosit.

Emakumeen garapenerako ikastaroak

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaz egiten diren «emakumeen garapenerako ikastaroak» antolatzeko proposamenak jasotzeko ireki zen epean, honako hauek aurkeztu

dira: Puntu eta jantzigintza, ehoziri-lana, al-tzarien zaharberritzea, loreen prentsaketa eta ebaketa eta jantzigintza. Dirulaguntza eskaera Nafarroako Gobernura bideratua bada ere, oraindik ez da erantzunik jaso.

Euskara teknikaria

Basaburua-Imotz eta Larraun-Araitz eskualdetako euskara tenikari izateko bi lanpostu betetzeko deialdian par-

te hartu zutenen eskaerak aztertu ondoren, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zuen eta Nafarroako Boletinean argitaratu berria da. Aurkeztutako 37 lagunetatik, 12 baztertuak izan dira. Hauek, hila-ren 12a arteko epea dute akatsak zuzentzeko.

Etxafuegoak erabiltzeko baimena

Aspaldi honetan etxafuegoekin izandako gertakari larriak direla medio eta honelakoak errepikatu ez daitezen, hemendik aurrera etxafuegoak botatzeko udal baimena derri-gorrezkoa izanen da, alkateak bando batez iragarri duenez. Baimena lortzeko, arduradun baten izen-abizenak eta noiz eta non botako diren jakinarazi beharko dira. Zebait herritan etxafuegoak erosteko -Tolosan adibidez- norberaren herriko udal baimena erakutsi behar izaten da.

AMAZABAL

Bigarren Hezkuntza Institutua
DBH eta Batxilergoak

Aurre-matrikula epea: martxoak 29-apirilak 16
Tel.: 948 510915 • Faxe: 948 510916 • LEITZA

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA



KONEKTATU internetera

TTIPI TXARTELA izateagatik INTERNETera konektatzeko aukera ezin hobea duzu. JALGI zerbitzariarekin urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea 10.000 Ptatan. Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

Urtebeteko konexioa gehi
posta elektronikoko helbidea:

10.000 Pta. + BEZ

(+34) 948 631188

BAZTAN

27 milioi pezetako aurrekontua izanen du Iturri-Ederra elkarteak

Elizondoko uren elkarteak sekulan izan duen haundiena da

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Iturri-Ederra uren elkarteak 26.932.140 pezetako aurrekontua izanen du aurten, urteko biltzar nagusian onartu zenez.

Joan den urteko kon-tuei dagokienez, elkar-teak 1,6 milioi pezeta-ko superabitarekin akitu zuen urtea. Iturri-Ederrak mila kidetik goiti baditu ere, hamalau bertzerik ez ziren agertu batzarrera eta horietatik erdiak zuzendaritza batzordekoak ziren.

Aurtengo dituzten egitasmoen artean, Salbide inguruan ura biltzeko depositoa egin nahi dute. Eraberean, ur-sarean kanale berriak egiteko bi milioi pezeta bideratuko dira, etorkizunean egiten ahal diren urbanizazio berriak hornitzeko. Hamabortz egunetik behin uraren analisia egingen duen zerbitzua kontratatuko du elkarteak. Urtean hirutan, azterketa sakonagoa egingen dute eta elkarteak berak, egunero-egunero egiten du klo-roaren neurketa. Pedro



Hiltegiari buruzko zenbait kexa aztertu ditu Udalak

Iruritako hiltegiaren funtzionamenduari buruz izandako zenbait kexu aztertu zuen azken udal batzarrak. Bertzeak bertze, 200 kilotik goitiko zerrak ez dira hiltzen, poleak ez baitu pisu hori eusten. Gainera, obran eta sanidade aldetik ere zenbait akats omen daude. Horiek guztiak moldatzeko erabakia hartu zuen Udalak.

Artxibokoa

Mari Esarte lehendakariak azpimarratu zenez, hirugarren aldiz segidan irabaziekin akitu du urtea Iturri-Ederra elkarteak.

Elkartearen ondarea 900 edo 1.000 milioi pezetan baloratu ondotik zuzendaritza batzordean hutsik dagoen bokal kargua Joxe Urrozek bete-ko duela erran zuen Esartek.

Askapeko harrobitik Otxondora doan bidea moldatzea eskatu dute Oronoz eta Arraiozko alkateak

Sobrinoren harrobitik (Arraioz eta Oronoz artean) ateri eta Otxondora akitzen den NA-4453 errepidea moldatzea eskatuko dio Balleko Udalak Nafarroako Gobernuko Bide Zerbitzuari, Oronoz eta Arraiozko alkateen es-

kariarekin bat eginez. Oronoz eta Arraiozko alkateek sinatutako idatzian bidea egoera negargarrian dagoela erraten da, batez ere hasierako lau kilometrotan, Urrizketako gaina arte. Egunero bide horretatik azientak edo iratzea

garraiatzen dutenek zulo haundiak, bidebater zikinak, harri solteak eta bertze zenbait arrisku izaten dituzte. Horregatik, bidea lehenbailehen konpontzea eskatu da, istripu larriren bat izan baino lehenago.

flash

- ❖ **Bertso saioa Aste Sainduan**
Apirilaren 4an, arratsaldeko Setan bertso saioa izanen da Elizondoko pilotalekuan. Bittor Elizagoien gai-emailearen erranetara, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Jokin Sorozabal ariko dira.
- ❖ **Amaiurko kanposaindu**
zaharra itxi eta bertan aparkalekuak eta lorategia egiteko asmoa agertu du Amaiurko alkateak. Elizaren ondoan dagoen kanposainduko hezurak bertze hilerri batera mugitu beharko dira. Horretarako, itxi baino hiru hilabete lehenagotik informazioa emanen da.

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala Belatik aitzinerat Larunbata eta besta egunetan zabaik
© 948 452121 • LEKAROZ

BAZTAN

Odol-emaileen urteko batzarra burutu da igande huntan

Guzira 380 daude Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin

TTIPI-TTAPA

Igande honetan burutu da Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko odol-emaileen batzarra. Guzira 380 emaile daude inguru honetan. Batzarra egin eta bazkariaren ondotik, urrezko eta zilarrezko dominak banatu ziren. Urrezko domina, 50 odol emanalditik goiti egin dutenei eman zitzaizkien: Elizondoko Jose Antonio Errotaberea eta Oronozko Luis Mari Elizaintzin. Zilarrezko domina 25 emanalditik goitikoei: Narbarteko Trinidad Altuart, Iurritako Jose Arraztoa, Arraiozko Joaquina Bengoetxea, Amaiurko M^a Pilar Elizalde, Arizkongo Manuel Morillo eta Elizondoko Maria Zubillaga.

Hurrengo emanaldia, uztailaren 20, 21 eta 22an egingen da.

Almandozko eskolako berotze sistema aldatzeko eskaera

Almandozko eskolako irakasle, ikasle eta



Emakume Langilearen Asteburua

Ekitaldi ugari izan dira Elizondon. Ortziralean, Amaia Elosegik, Ana Larretxeak, Patrizia Leizak eta Isabel Ibarrolak munduan barna egindako espedizioen berri eman zuten. Halere, ekitaldirik arrakastatsunea Mikel Goñi eta Iñaki Otxandorenak, Baztango pala txapelketa irabazi duten bi emakumeen kontra jokaturako partidua izan da, doike.

gurasoek eskolako berotze sistema aldatzea eskatu diote Baztango Udalarari. Eskolatik igorritako idatzian ageri denez, «*eskolan dugun berotzeko sistema arrastarra eta eskasa da, eta egoera larriagotzen da bi ikasgeletako batean, leihoak zaharkituak egonik, gaizki ixten direlako*». Aurten, negu gogorra izan da eta ho-

tzaren ondorioz, katarro eta gripe arazoak gehitu dira. Berotzeko sistema eta leiho berriak eskatzeaz gain, teiltuaren egoera arriskuetsua azpimarratu dute, «*eskolako sarreran eta jolastokian, noiznahi, teillak erortzen baitira*». Egoera aztertzeri joatea eta soluzioak ematea eskatu zaio Udalarari. Bertzalde, Alman-

dozera ura ekartzeko lanak akitu dira. Orain bi ur-depositoak betetzea gelditzen da. Horietako bat sarera lotuko da eta bertzea erreserbarako gordeko da.

Baztanesa eta Almandoz

Baztanesa autobus enpresak Almandozera sartu beharrean, saihebidetik pasatzeko bai-

flash

❖ **Anizko elkartea**
Anizen, elkartea eta batzarretarako aretoa egiteko asmoa dute. Lanak hasteko baimenaren esperotan daude.

❖ **Etxebizitza berriak Berroetan**
Berroetan lau etxe berri egiten ari dira, bortz etxebizitza guzira. Azken urteotan herriko etxe gehienak moldatu eta berri-ritu dira. Baina karririk berdin-berdin segitzen dute: Gaizki. Noiz arte?

❖ **Zinegotzi berria**
Leopoldo Jaen Sobrinok beteko du Balleko Udalean, Agrupacion Baztandarra taldeko zinegotzi kargua. Berriki hildako Juanito Meokiren ordez sartuko da.

mena eskatu dio Nafarroako Gobernuari berri-ritu ere. Enpresa honek duen baimenak, Almandoztik igarotzera behartzen du. Beraz, Almandozko herriak zerbitzua gaur egun dagoen bezala mantentzea eskatu dio Nafarroako Gobernuari.



ZUBIRIA MINDEGIAK

- *Etxeak apaintzeko landareak*
- *Baso landareak*
- *Bertako frutondoak*

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274



BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu



Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAUIR • Tfnoa: 948 453 060



© 948 581 391
Santiago 62 - ELIZONDO



Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

SARA

Eskola publikoko erakasle eta burasoak haserre

Erakasle postu erdi bat kentzea erabaki du Inspektzio Akademikoak

ANA MARI, MARTINE ETA FREDERICK

Eskola publikoko erakasle eta burasoak haserre dira, Inspektzio Akademikoak, heldu den ikasturteko erakasle postu erdi bat kentzea erabaki duelakotz. Hori gauzatuko balitz, euskarazko 12 oren desagertuko lirateke. Oren kopuru garrantzitsua dela ezin uka. Alabainan, eskolan diren 117 ikasleentatik 90ek (%77) euskarazko kurtsoak hartzen dituzte. Bertzalde, erabaki hori arrunt zentzugabekoa kaustitzen dute, gero eta haur gehiago ari baita euskaraz ikasten eskola publikoan.

Beren desadostasuna erakusteko, eskolako lokalak okupatu dituzte martxoaren 4ean, Akademiak erabaki definitibo hilabete hunen erditsuan jakinaraziko baitu.

Korrika heldu da

«1+1= hamaika, zu eta ni euskaraz!» lelopean, 11. Korrika jadanik hor dugu. Iruñetik abiatuko da martxoaren 19an eta Euskal Herriko bazter guzietan ibili ondoren, Donostiarat iritsiko da 28an. Martxoaren 20an, larunbat goizean pasatuko da herri-tik. Senperetik etorri eta



Lehen taldea kanporatua, bigarren taldea aintzina

Otsailaren 28an, herriko basurdeek Lit eta Mixeko taldearen aurka irabazi baldin bazuten ere 0-14, txapelketatik kanporatuak dire. Aldiz, bigarren taldeak berdinketa lortuz 13-13 landestarren kontra, final laurdenetako lehiari jarraituko dute. Beharrezkoa izanen dute ondoko partida irabaztea lehiari segitzeko, galtzeak bortxaz kanporaketa erran nahi baitu.

6.43etan sartuko da Saran. Herrian barna 7 km. kurrutu ondoren, 7.28etan azkaindarrek hartuko dute lekukoa

San Iñazikioko lepoan. Saltegi, ostatu eta kormertzio guziei proposatu egin zaie autocollant bat ematea, jende-

ari adierazteko dendan euskaraz hitz egiten ahal dutela. Partaide guzien izenekin gida bat zabalduko da Iparraldean.

▼ flash

❖ Aldaketa prentsa dendan

